

IRITZIA

zuzendariari

BERRIAk irakurleen eskutizak plazaratzen ditu. Tarte bikoitzera idatzitako orrialde batean kabitu behar dute, eta BERRIAk mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: BERRIA, Martin Ugalde Kultur Parkea, 30012 Andoain. iritzia@berria.info

Ordiziako Oiangu parkea publikoa eta bizirik

Martxoaz geroztik, Oiangu Publikoa eta Bizirik plataformak ordiziar askoren babes eta laguntzarekin, hainbat ekintza burutu ditu Ordiziako Udalak onartutako Oiangu Aisigunea egitasmoaren aurka: sinadurak bildu; komunikabide, kartel eta hitzaldien bidez informazioa zabaltu; Oiangu Eguna ospatu; harremanak izan Arartekoarekin, alderdi politikoekin, Goiekirekin, ikastetxeekin... Eta ekintza horiek guztiek beren emaitza izan dute. Izan ere, Ikena enpresak, Udalaren laguntzarekin, baina Foru Aldundiak onartu beharreko Plan Berezirik gabe, hainbat obra egiteko asmoa zuen (golf praktiketarako eta paintball delakorako lur eremuak itxi eta egokitu, jate-txea handitu...). Obra horiek, ordea, ez dira gauzatu.

Esan behar da Oiangu 40 urtez Ikena enpresaren esku izateko erabakia hartzeko prozesuan, hainbat hutsune legal eman direla: kontratuaren helburua ilun eta zehaztugabea izan da, Foru Aldundiak Plan Berezia onartu aurretik obrak hasteko asmoa zuten, kontzesioa bera geroago osatu nahi zen beste enpresa bati emateko asmoa zuten beharrezko baldintza legalak bete gabe... Legezko hutsuak ho-

riek direla eta, adjudikazioa bertan behera uzteko eskatuz maiatzaren 11n Udalean erroposizio helegitea delakoa aurkeztu genuen 3.000 sinaduren babesarekin.

Helegite hori aurkeztu aurretik, Oianguko espeditentean den informazio osoa eskuratzeke udalaren baimena izan dugu, baina helegitea aurkeztu ondoren informazioa ukatu egin zaigu, ez garelako «interesatua» esanez. Informazio publikoa horrela ezkutatzea eta herritarrak parte interesatutzat ez jotzea oso larria iruditzen zaigu.

Hilabete pasa ondoren, eta helegitearen erantzunik ez dugunez jaso, plataformak honen Ordiziako Udalarari eskatu dio bertan behera utz dezala Oiangurako kontzesioa Administrazio Publikoaren Erregimen Juridikoak adierazten duena jarraituz. Hala egin beharrean, ordea, uztailaren 21ean goizeko 10etan ospatutako Osoko Bilkuran, gehiengo absolutuz erabaki dute helegitearen tramitea bera ere ez onartzea (hau da, eztabaidatu ere ez gitea), esan bezala, Udalaren ustez ez baikara egitasmo honetan parte «interesatua».

Idatzi honekin ordiziar orri jakinarazi nahi diogu Plataformak honen Oiangurako egitasmoa gelditzeko ekimenak burutzen jarraituko duela, eskura ditugun baliabide bakoitu eta legal guztiak erabiliz.

Horrexegatik, herritarrak animatu nahi ditugu ekimen horietan parte har dezaten, bai sinadura emanez, bai ekonomikoki laguntzeko bonoak erosiz, eta baita irailetik aurrera antolatuko ditugun ekimenetan parte hartuz ere.

Festa eta uda zoriontsuak igaro ditzazuela.

Edurne Huesa Otegi
Oiangu publikoa eta bizirik
plataformaren izenean

Ardiak eta astoak

Beti da atsegina Gari Berasaluzeren iritzi idatzia irakurtzea. Aukera izan dudana guztietan esan diot gutxi bezala idazten dituela, ohikeriatik eta arruntasunetik kanpo, gehienetan.

Irribarre egin dut gaur (uztailak 26) «Ez gara ardiak» izenekoa irakurri diodanean. Ez nago batere ados bertan esaten duenarekin. Nire ustez, euskaldunak ardiak bezalakoak gara, eta gure etorkizuna horrelakoak izaten jarraitzean dagoelakoan nago. Ona da katalanen aberea astoa izatea eta gurea ardia. Berdin-berdin zait espainolena zezena den ala beste antzeko edozein. Ardia apala eta bihotz onkoa da, maitagarria. Egia da taldean ibili ohi dela eta ergetasunaren ikurtzat jotzen dela, baina horiek gizakion kontuak dira. Ardia benetan

da inbidagarria: sortzez nahasia da, horrek dakarkion gogortasun eta iraunkortasunarekin; beti mintzo da beeka, inoiz beste inoren mintzamolderik bereganatu gabe; pazientzia bera baino hobe eta astoa bakarrik delakoan nago eta, baketsua eta onbera da guztiz. Eta lagun ezin hobe da dauka: txakurra. Otso, lehoi eta zezen asko dagoen garaitan (gaur atzo bezala) ardiak aurrera egiten daki, itxuraz burumakur belarra jaten, baina egiaz bere izaera jatorraren iraunkortasuna bermatzen.

Ardi burugogorra izaten jarraitu nahi dut.

Aitor Arana
Azpeitia

Surfa ETBn

ETBk azkenean surfari buruzko saioa egin izana gorripatu nahi dut. Halaber, salatu giro euskaldunaren bizi dugun kirolari buruzko saioa gaztelania hutsean izatea. Erabakia ulertezina da, jakinik surfean aritzen garen gehienak gazte gara eta euskara dugula lehen hizkuntza. Euskara sustatzearen aurkako aukera egin duela deritzot. Atzerapauso galanta euskara, kirola eta gazteria uztartze bidean.

Kerman Orbegozo
Donostia

larrepetit

Agurra



AMETS ARZALLUS

Uste dut papera ere nekatu egin dela ni ikusten. Abisatu zidan hasieratik alferrik saiatzea izango zela. Ez egoteko hainbeste denbora alardeari so, epaileari inkesidore deitzen ez ibiltzeko, palestinarrei bakean uzteko. Dena, denbora eta papera alferrik zahutzea izango zela. Styloak debalde emango balizkidate bezala. Baina ni kaskagorria izan, eta postariaren motoa ezantza ahi-tu arte erabili nuen, irrartian ahotsa galtzeraino aritu nintzen. Baina alferrik. Begira non dabilen Garzon, nola dagoen Hondarribia, nola Nazio Batuen Erakundea, non egongo ote den gudaria... Nik ere etsi dut. Paperak ez du gurrik ematen.

Bertsotan saiatu beharko dut. Berak ekarri ninduen hona, eta beraz zuzenagoa izango da hitza berari ematea idazlearen papera betetzen ibiltzea baino. Betetzen edo husten. Inpresioa baitu batzutan gu hustu arren paperik ez dugula betetzen. Eta ez dago etsigarriagorik paper hutsa zirriborrotz bete, irakurri, eta hutsa ikustea baino. Horixe ahalegintze hutsa. Bertsotan ere berdin gerta daiteke behar bada. Edo behar bada ez. Gainera bertsoak paperera ere eman daitezke, nahiz aspaldian ez dagoen oso modan.

Hitza hitz, idazteari uztera noa momentuz, batez ere, papera ere nekatu egin delako ni ikusten.

galde-eskeak



ANJEL ALKAIN
AKTOREA

Toki askotan ikusi zaitugu azken aldian: Sorginen Larztan, Wazemanken eta 'Kutsidazu bidea, Ixabel'-en antzerkian zein filmean parte hartu duzu. Ez duzu gehiegi nekatzeko beldurrik?

Nerea Goiburua

Nekatu ni? Gustuko lekuan aldaparik ez. Hauxe da nire sekretua: goizean porrusalda eta eguerdian aza, dieta honekin etxean gertzea ez da erraza.

www.berria.info

Segurtasuna areagotzeko Europako Batasuna proposatzen ari den neurriak egokiak iruditzen zaizkizu?

BAI	%9
EZ	%91

Askatasuna ez dago salgai, ezin da murriztu. Ez dakit zein erok proposatu duen hori.

© Irakurle bat

Mendebaldeko zibilizazioaren paladinek mundua kontzentrazio esparru bilakatu nahi dute. New Yorken, Madrilan eta Londonen atentatuak egin zituztenak terroristak dira. Zer izen jarriko diegu gure herriek baldintzen dituzten hiltzaile profesionalak? Zibilak hiltzen dituztenei eta gure lurretako baliabide naturalak lapurtzen dituztenei? Zein segurtasun mota bermatzen die gure herritarrei judutar-anglosaxoien inbasioak?

© Saladino

hitz beste

Egunkariaren bermea

ANJEL LERTXUNDI

Argentinan kontaktzen dutena kontaktzen zuen orain izenik gogoratzen ez diodan idazle batek. Opor garaia. Egunkari handi bateko erredakzioan, ohi baino kazetari gutxiago. Bekariak, berriz, asko. Bekarietako bat, dokumentazioaz arduratzen baita, bila ari da: hatxearekin ala hatxerik gabe idazten da isla galduren batean leheritu berri den sumendiaren izena? Bekariak ez daki. Entziklopediak islaren berri dakar, ez sumendiarenik. Bekariak, ez baitu lotsagarri gelditu nahi erredakzioko izen handiko kazetariaren artean, telefonoa hartu eta amari deitu dio. Ea nola idazten den leheritu berri den sumendiaren izena. Amak ere ez daki. Leonkastillo egin eta gero, bekariak hatxez emango du sumendiaren izena.

Biharamunean, amak deitzen dio: «Egun on, seme: atzo galdetzen zenidan sumendi horren izenak hatxerik behar du. Hala ikusi dut gaur goizean zure egunkarian».